



**Arartekoaren 2015R-1495-14 ebazpena, 2015eko martxoaren 10ekoa, osasun-laguntzatik eratorritako joan-etorrien gastuei buruzko kexaren ingurukoa.**

### Aurrekariak

Pertsona batek bere bizitokia ez den beste lurralde historiko bateko ospitalera joan behar izan du zenbait aldiz. Bada, kexa aurkeztu zuen, joan-etorrien finantzaketa faltarengatik. Desplazamendu distantzia egoera berean edo hobean daudenekin alderatuta jasotzen duen tratu desberdintasunari buruzkoa da kexa; izan ere, laguntzak jasotzen dituzte, gure autonomia Erkidegotik kanpora joan behar izaten dutelako.

Ez diogu finantzaketa nahi izateari zilegitasunik kendu nahi, baina, gure ustez, ez dago pertsona bakoitzaren bizitokitik hurbil zerbitzuak egon edo sortu behar izateko eskubiderik. Gainera, gauzatu ezinezkoa izango litzateke, eta, bestetik, zaila litzateke kontuan hartu beharreko distantzia ebaluatu eta modu objektiboan hartzea.

Zirkunstantzia jakin batzuetan joan-etorriak finantzatzeak, ordea, finantzatzen ez diren joan-etorriekiko tratu bereizia ote dakarren aztertzeraz garrantzitsua da. Zehazki, laguntzen egungo erregulazioaz ari gara (1/2007 Agindu Orokorra). Bertan, tratu desberdina ematen da, gure Autonomia Erkidego barruan edo hortik kanpokoa izan desplazamendua. Horren eraginez, baliteke finantzatzen diren joan-etorriak baino handiagoak diren desplazamenduak ez finantzatzea.

Kexa ikuspuntu horretatik aztertuta, informazioa eskatu genion Osasun Sailari, egin dugun eragozpen horri buruzko bere iritzia ezagutzeko xedez, aipatu aginduak joan-etorrien gastuak behatzeko moduari dagokionean.

Bere erantzunean, kexaren aurrekariak aipatu ondoren, zera azaldu du:

*"...1/2007 Jarraibidean jasotako laguntzen helburu nagusia dela Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak -euskal herritarrei osasun-asistentzia izateko eskubidea bermatzen dien erakundea izanik- herritarrak konpentsatzea, baldin eta osasun-laguntza behar eta, gure osasun-zerbitzu publikoak erabilia lagundu ezin diegulako, pazienteak gure asistentzia-eremuan ez dagoen OSNren zentro*



*balera eraman behar bada. Arrazoizkoa da pentsatzea, gure herritarrei behar duten osasun-asistentzia emateko betebeharra dugunez, asistentzia hori eskaini ezin diegulako gure autonomia erkidegotik kanpoko zentroetara bidali behar baditugu, nolabait konpentsatu behako ditugula horrek ekar diezaiekeen diru-galeragatik.*

*Baina, gure aseguratuek beren erkidegoaren barruko joan-etorriak egin behar badituzte, ez da Osakidetzaren baliabide faltagatik, eta, horrenbestez, ez da haiek behar duten osasun-asistentzia eman ezin diegulako, batzuk osasun-zentro publikoetatik beste batzuk baino urrunago bizi direlako baizik, eta, horrenbestez, uste dugu osasun-administrazioa ezin dela egoera horren erantzule egin.*

*Bestetik, gure erkidegoaren barruko joan-etorri bat OSNren erreferentziazko zentro baterako joan-etorria baino distantzia handiagora egotea ez da oso ohikoa izaten, eta ez da maiz gertatzen: OSNren zentroa gure erkidegotik hurbil dagoen kasuan bakarrik. Hori litzateke, adibidez, Valdecillako Ospitaleak (Kantabria) gure aseguratuei egiten dien bihotz-transplanteen kasua. Edonola ere, egoera hori noizean behin gertatzen dela onartu behar badugu ere, ez dugu uste nahikoa denik 1/2007 Jarraibide Orokorrean jasotako laguntzen izaera baliogabetzeko."*

Aurrekari horiekin, ondorengo gogoetak egin ditzakegu:

### Gogoetak

Galera ekonomikoaren ikuspuntutik, ez dirudi desberdintasunik dagoenik desplazamendu batek eta besteak eragindakoaren artean, gure Autonomia Erkidego barruan ala kanpoan izan.

1/2007 Aginduak, ordea, Euskaditik kanpo mugitu behar dutenen aldeko tratu desberdintasuna ezarri du. Erabiltzaileak egin beharko ez lituzkeen joan-etorriak direla iritzita zuritu du bereizkeria hori; hau da, euskal osasun sistemak berak zerbitzu horiek emango balitu, ez luketela joan-etorri hori egin beharrik izango.

Hala ere, finantzatzen diren joan-etorri batzuen distantzia gure Autonomia Erkidego barruko desplazamendu batzuen bano txikiagoa da (horrelaxe gerta daiteke



komunitate mugakideekin). Kalte ekonomikoa orekatzea bada helburua, ez dago desberdintasunik bataren eta bestearen gastuen artean.

Oro har, justifikazio horretan oinarritutako tratu desberdintasuna ez da, berez, apetazkoa. Baina izatera irits daiteke, konparatzen diren kasuak distantzia bereko joan-etorriak direnean, eta bataren eta bestearen arteko elementu berezia bietako bat erkidegotik kanpokoa izatea denean.

Erkidego barruan gertatzen den desplazamendua distantzia berekoa edo handiagokoa bada, eta, joan-etorria, gainera, pazientearen osasun eremuko zerbitzuek pazientearen artatu ezin izanak eragiten badu, zailagoa da tratu desberdintasuna justifikatzea.

Euskal osasun sistemak osasun-laguntza emateko ezintasunean oinarritutako desplazamenduen kostua orekatzea bada helburua, gure iritziz, justifikaziotzat hartzeko, beharrezkoa da elementu zuzentzaile bat txertatzea; distantziari dagokiona izan daitekeena. Esaterako, euskal osasun sistemak ezin badu bitarteko propioen bidez arretarik eman, joan-etorriak finantzatu daitezke; baina bakar-bakarrik gure Autonomia Erkidego barruko edozein tokialdatzek edukiko lukeen distantzia bera edo handiagoa balitz.

Horrela, justifikatu gabeko tratu berezia saihestuko litzateke; hau da, Euskaditik kanpoko desplazamenduak izateagatik horiek finantzatzea, baina horien distantzia bera edo handiagoa dutenak ez finantzatzea, Euskadi barrukoak izateagatik.

Gure funtzioetatik kanpo dago joan-etorri horiek finantzatu behar diren zehaztea. Hala ere, behin laguntzak ezarrita, irizpideek berdintasun printzipioa errespetatu behar dutela uste dugu. Eta printzipio horri dagokionean, ez zaigu iruditzen Osakidetza baliabide urritasunagatik bakarrik justifikatu daitekeen distantzia berberen arteko tratu bereizkeria hori.

Ez dakigu komunitate mugakideetarako joan-etorrien maiztasuna zein den. Baliteke urria izatea, eta, beraz, gutxitan gertatzea tratu bereizi hori, gure ustez, justifikatuta ez dagoena.

Bestalde, gure osasun eremuko erreferentziatzeko zerbitzuek artatu ezin gaituztenean gertatzen diren erkidego barruko joan-etorrien maiztasuna dela-eta, pentsarazi egin digu laguntzen guztizko zenbatekoa asko handitzea ekarriko lukeela. Hala ere,



bideraezin izateak ezin digu, berez, kexa hau abiarazi duen arrazoia, hots, tratu berezia, alboratzea eragin. Hortaz, jorratu egin behar da.

Aurreko gogoetetan oinarrituta, egokia iruditu zait ondorengo gomendioa helaraztea:

### GOMENDIOA

1/2007 Agindu Orokorrean aurreikusitako gaurko laguntza sistema berraztertu dadila, distantzia bera duten joan-etorrietan tratu berezia saiheste aldera.